



## Santa Kruz jaien baitan, ekitaldi asko gaur Orexan

**SANTAKUTZ EGUNA** ▶ Intxaurpe eta Elbarrene auzoen arteko lehia izango da; iazkoaren errebantxa

**AMAIERA** ▶ Herriko jaien egun handienarekin bukatuko dituzte orexarrek festak gaur gauean ▶ 6



Bertso saioa izan zuten hererengun gauean Orexan. HITZA



IMANOL GARCIA

## Ehunka lagunek omendu dute Jon Tapia

**ZIZURKIL** ▶ Joxe Arregi plazan egin zioten omenaldia atzo seihun bat lagunek 22 urtez preso egondakoari; ondoren, bazkaria egin zuten ▶ 3

**LEITZALDEA** ▶

### Leitzako faila, Iberia eta Europa arteko muga

Geologo baten hitzak bildu ditugu ▶ 4-5

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** ▶

### Sari ugari banatu ditu HITZAK irakurleen eta harpidedunen artean

HITZA Argazki Lehiaketako sariak jaso dituztenen aurpegiak ezagutu ditu ▶ 2



JOSU GONZALEZ

**ANOETA** ▶

### Udalaren jarrera salatu dute herrian

Festa alternatiboak antolatuko dituzte ▶ 7

## HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶



**1. saria.**  
Josu  
Gonzalez  
(Tolosa).  
Donostiako  
Kontxan  
atera zuen  
argazkia.



**2. saria.**  
Ramon  
Garmendia  
(Ibarra).  
Udalaitzen  
atera zuen,  
Anboto  
ikusten.



**3. saria.**  
Maider  
Muñagorri  
(Tolosa).  
Donostiako  
Haizeen  
Orrazian  
atera zuen.



## Irabazleak sariekin

Josu Gonzalezek, Ramon Garmendiak eta Maider Muñagorrik jaso dituzte irabazitako sari ederrak

### JOXEMI SAIZAR

Joan zen asteko igandean argitaratu genituen HITZA Argazki Lehiaketako lan irabazleak eta oraingoan Aste Santuan irudi horiek lortu dituztenen arpegiak dakartzagu, saria jasotzeko unean.

Partaidetza handia izan du lehiaketak, jarritako sari ederrak bultzatuta, dudarik gabe. Guztira 56 argazki aurkeztu dituzte lehiaketan, gehienak digitaletan, baina baita paperean ere. Oso maila altua izan da eta zaila izan du HITZAK izendatutako epai-mahaiaik zortzi argazki finalistak aukeratzeko. Hilaren 17an argitaratu ziren zortzi finalistak. Horien artean irakurleek aukeratu dituzte hiru sari-tuak. Parte-hartzea bultzatzea zen helburua eta lortu dela esan daiteke. 83 pertsonak deitu dute bere botoa emateko. Ez bakarrik Tolosaldeko eta Leitzaldeko, baita Oñatiatik eta Tuteratik ere. Parte-hartzaileen senitarteko eta lagun ugari somatu ditugu boto emaleen artean, noski.

### Irakurleek aukeratu

Lehen saria Josu Gonzalez Arsuaga tolosarrarentzat izan da. Argazkigintzan ia hasi berria izan arren, pintura eta eskultura munduan eskarmentu han-

dia du gizon horrek. Donostiako Kontxan eguzkia sartzen harapatutako irudia izan da boto gehien eskuratu dituen. Berak, Berrobiko Iriarte jatetxe ospetsuan bi laguntzako afari ederra eskuratu du sari-tzat.

Bigarren saria Ramon Garmendia ibartarrarentzat izan da, irakurleek hautatuta. Mendiko irudi aparta da, Udalaizzen gailurretik aterata. Anboto ikusten dela. Hori ere iluntzean atera zuen. Mendiko beste irudi ederrak bidali zituen ibartarrak lehiaketara. Honentzat beste bi afari izan dira, kasu honetan Adunako Zabala sagardotegian.

Hirugarren saria Maider Muñagorri tolosarrarentzat izatea erabaki dute irakurleek. Itsasoko argazki polit bat da hau, Donostiako Haizeen Orrazian aterata olatu bat lehertzen den une berean. Leaburuko Mahatza etxeko produktu naturalen sorta ederra eskuratu du lehiaketari esker.

Hiru sari-tuak oso gustura agertu dira lortutako sariekin eta hurrengo baterako ere animatuta daude. Aurrerantzean ere horrelako beste lehiaketa batzuk antolatzeke asmoa du HITZAK. Beraz, erne egon eta animatu zuek ere. Parte hartu lehiaketan eta sari ederrak eskura ditzakezue.

### JOSU GONZALEZ ARSUAGA ▶ IRABAZLEA

## «Duela bi urte oparitu zidaten kamararekin hasi nintzen honetan»

Josu Gonzalez Arsuaga tolosarrarekin izan da HITZA bere argazki zaletasunaz eta orain arteko esperientziak mintzatzeko. **Aspalditik ari al zara argazkigintzan?**

Ez, duela bi urte, ezkontzaren zilarrezko ezteietan, argazki kamara bat oparitu zidaten eta orduan hasi nintzen. Lehendik pintura eta eskultura egin izan dut asko.

**Arte munduan murgilduta zaude, beraz. Erakusketaren bat egin al duzu inoiz?**

Bai, Tolosako Kultur Etxean eta hainbat tabernatan eta Lleidan Jesus Zulueta beasaindarrarekin batera beste bat La Caixan. **Zein argazki kamara duzu?** Canon EOS 3000. Reflexa da. Digitalarekin ere probatu nahi dut, aukera asko ematen dituelako photoshop-en eta.

**Nola atera zenuen irabazle izan den argazkia?**

Donostiara joan ginen arratsalde batean eta emaztea

erosketak egiten ari zen bitartean atera nuen. Eguzkia sartzen ikusi nuen eta hamar minutuko tarte hori aprobetxatu nuen. Objektibotik begiratu gabe atera nuen, gainera, makurtzeko gaizki zegoelako.

**Beste sariren bat jaso al duzu inoiz?**

Ez, baina Aiztondoko lehiaketan nire bi argazki finalista izan ziren. Hemen finalista izan den Leire Arreseigor amezketarra han bigarrena izan zen.

**Zein gai dituzu gustuko?**

Paisaiak orokorrean: mendia, San Miguel...

**Argazkigintzan jarraitzeko asmotan?**

Bai. Sanjoanetan Saikin tabernan egingo dut nire lehen argazki erakusketa. *Sanjoanak* izango da gaia. Orain arte beti zezenen koadroak jartzen nituen, hala eskatuta, nahiz eta ni zalea ez izan. Oraingoan denetik jarriko dut: dantzariak, eskopetariak... ◀

## Saria, parte hartzeagatik

Partaidetza saritzeko, HITZA-ko sudadera bana zozketatu dugu parte-hartzaileen eta botoa eman duten irakurleen artean. Lehena Auria Gorostiaga oñatiarrarentzat izan da eta bestea Ane Berasategi tolosarrarentzat. ◀



Auria Gorostiaga. HITZA



Ane Berasategi. L.MONTES

ZIZURKIL ▶ EUSKAL PRESOK

# «Maite zaituztet»

Ehunka lagun bildu ziren atzo Joxe Arregi plazan aske utzi berri duten Jon Tapiari omenaldia egiteko

IMANOL GARCIA

Eskualde guztitik joandako seiehun bat lagun bildu ziren atzo eguerdian Jon Tapiari zizurkildarrari omenaldi beroa egiteko. Herriko Joxe Arregi plazan izan zen ekitaldian euskal preso politiko ohien eta hainbat talderen opari eta besarkadak jaso zituen. Tapiari, ekitaldian bukaeran hitza hartu zuenean, eskerrak eman zizkien bildutako guztiei «maite zaituztet» esanez. Hainbeste jende ikusteaz «harrirituta» zegoela azaldu zion omenduak Hitzari, eta gaineratu: «Omenaldia berari egin behar zaie».

Plazaren erdian, ikurriñekin osatutako bidea zeharkatu zuen Jon Tapiak, bere seme Garirekin batera, omenaldi hasieran. Ondoren, hiru dantzari aureskua dantzatu zioten. Hori amaituta, plazako kioskorara igo zen eta talde eta norbanakoekin opariak eta omen hitzak jasotzen hasi zen.

Bi aurkezle bere bizitza errepasatzen hasi ziren: txalaparta irakasten zueneko, bere mendizaletasuna eta naturarekiko maitasuna aipatu zuten; baita euskara zabaltzen egindako lana eta familiarekin iparraldera nola jo behar izan zuen ere. Errepasoa egin ahala, ekitaldi xumeak tartekatzen joan ziren: Oihane Enbeitak irakurritako olerkia, Amets Arzallusen eta beste bertsolari batzuren koplak, txalaparta...

Momentu hunkigarrienak Tapiak kartzelan emandako urteei buruz hitz egiterakoan izan ziren. Berak idatzitako *Kartzelatik* liburuaren pasarte-



Omenaldiaren hasieran Jon Tapiak bere seme Garirekin plaza zeharkatu zuen ikurriñen artean. I. GARCIA



Ekitaldiaren ondoren bazkaltzen gelditu ziren ehunka lagunek aurre egin behar izan zioten eguzkiari. I.G.

## Jon Tapiaren hitzak

«Kaixo lagun abertzaleok! Andaluziatik etorria naiz. Lurralde arrotzetatik udaberri jantzitan ikusten ditudan gure damaren lurraldeetara. Gure Mariren Aberrira. Esker mila guztioi! Zuek izan zaretelako nire amets-iturri. Eta, orain, nire amets-kabira etorri ondoren, zuen beso gozotan babestua eta losindua sentitzen naizelako. Han, zulo ilunetan gelditu diren kideek mezu bat helarazten dizue: 'Zuen borrokak tinkotasuna esnarazten duenean, udaberria somatzen da kartzelako airean'. Aurrera, beraz, aintzakotzat har gaitzaten arte. Maite zaituzte! Gora Euskadi askatuta!»

ak irakurri zituzten eta preso emandako 22 urteetan egindako borrokaldien berri eman zuten. Tarte horretan, Jon Askatu plataformaren, presoen senitartekoekin, Askatasunaren eta Euskal Preso Politikoen Kolektiboko kideen omenaldia jaso zuen, besteak beste. Amaizeko, Anje Duhaldek, trikitian Iker Goenaga lagun zuela, amnistiaren aldeko abesti ezaguna kantatu zuen, eta azkenik Jon Tapiak hartu zuen hitza.

Omenaldiaren ondoren, bazkaria egin zuten plazan. Eguzkia izan zuten uneoro buru gainean; egunkari paperez egindako txapelekin eta aterkiekin aurre egin behar izan zioten.

hitza

# txokoa

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5\*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

\*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

## 'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

**Avalon**  
o s a g a i a k  
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

**honekin**  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 24 30

**kanikak**  
San Frantzisko, 21 • Tolosa  
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 04 62

**ILUMINAZIOA**

**SHANTI KIROLAK**  
Rondilla, 11  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 74

**MUGAR**  
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 56 85

**LIZARRIBAR**  
OINETAKOAK  
Arostegieta kalean  
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GEOLOGIA

ASIER AZPIKURTA / BERBIA

Demagun Irufetik Donostiarako bidia egiten dugula, autoa hartuta. Bada, Nafarroatik Gipuzkoara pasatzen garen moduan, Iberiari Europara pasatuko gara berdin-berdin. Aritia 15 autobian, Aresoko zubia Iberian hasiko du-gu, baina Europaren izanera gara...

Euskaldunok batzen gaituen haustura

Leitzako failak ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du Euskal Herria, eta Europaren eta Iberiaren arteko muga zehazten du



dago, eta nahiko gauza zaguena da orain. Iberiarako Penintsularen hegoaldean Afrika dago, eta Afrika gorantz ari da egiten. Indio-ko Ozeanoa, Artikoa eta Atlantikoa irekitzen ari baitira. Afrikaren igotze hori dela eta, Mediterraneoaren itxen ari da. Europako plaka —plaka euroasiatikoa, zehatzago— ez da mugitzen, eta mugimenduak erdian harapatzen du Iberiaro plaka. Halaxe sortu ziren Pirinioak penintsularen iparraldean eta mendiri Beltsoak hegoaldean. Atlantikoa sei bat milimetro mugitzen da urtean. «Garai alpinotxoak irakatsiak erran dugu-ne. Ozeanoak irekitzen ari dira, eta materiala injektatzen da sortzen dituzten hutsuneetan. Material horien artean magnetita dago, eta magnetita poloen araberaren orientatzen denez, plakaak noia mugitu diren jakiten ahal dugu. Paleomagnetismoa duetzen zaito hori. «Bada, Ozeano Atlantikoaren mugimenduen azterketa eginez —gainera, azterketa horietako bat Nafarroan egin zen—, badakigu Iberia, Europari dagokionez, 35-36 gradu bitartean dela etorriaren orratzen aurka. Beraz, bada, badakigu garai batean Iberiaro penintsula Ingalaterrako hegoaldean itxasitua zegoela. «Beno, hori garai alpinotxo azarri bagara, hau da, azken 200 milioi urtez ari bagara, zehaztu du Martinezek. «Lehenago, Herzinkoan adibidez, Badajoz (España) Ternua (Kanada) inguruan zegoen, eta ondoren zuten Alemaniako iparraldea. Hori jakina oso erraza da, fosil berdinak baituzte. Kontu zaharra da hori, ongi neurtuta

ak adierazi du faila horretan sakonera handiko haizak daukela. «Mantuko haizak dauka failan, 50-60 kilometroko sakonera. Metamorfismoa dago eta deformazio handia, haizak zehatuta daude erabat. Bertze aldean, failari lotuta, lurrikarak izaten dira. Baina ez da oso falia aktiboa. Sismotektonikaren maila ertaina du. Orain sismografoak paratu dituzte bertan, eta 300 bat lurrikaraxo neurtu dituzte. Baina gailu horiek jarri izan ez balituzte, ez gertuena nabaritzuko. Leitzako faila, Europako eta Iberiaro plaken arteko muga, Eilzondotik pasatzen da, eta Oronoztik, eta Donostiebitik. Urrotzen hagitu ongi ikusten

Irufetik Donostiarako bidian, Aresoko zubiaren hasiera Iberian dago, eta bukatara, Europan. ARGIBEA MANTEROLA / ARGIBEA PRESS

da, Martinezek dioenez. «Sal-diasen ere bai. Ingaru horretako, gainera, oso bitxia da. Sal-diasen zortzi erregetara jokatzen dute musunen, eta ondoko herrian, Eratsunen, baitara, Izugarria da. Leitzak ere pasatzen da Leitzako faila, nola ez. Eta, handik, Tolosa aldera joaten da. Baina geologik ez dute oso garbi nondik joaten den gero, deformazio handiak baitago inguru horretan. «Gero, Loloian agertzen da faila berri. Leitzako faila itxia dago erabat. Orain, Europako eta Iberiaro plakak batera mugitzen dira, mugituzkotan. Failak aspaldiko deformazio bat markatzen du. Hain zegoen muga. Eta ez da plano bat, ez da marra zuzen



Leitzako faila Barmika inguruan bukatzen da, Bizkain. Hondartzako labarrek beltzura Rusgarrik dazute. BERBIA, HERRIKI / ARGIBEA PRESS

IRAGANEAN

«Iberiaro Penintsula Ingalaterrako hegoaldean zegoen iraganean», esan du Koldo Martinezek

ETORKIZUNEAN

«Etorkizunean, berri, desagertu egingo da Mediterraneo, Afrikak buitzatuta»; hala uste du EHUko irakasleak

bat, 200-300 bat metroko banda da, eta sigi-sagi doa. Sal-diasen, adibidez, Ezkurra gainerantz begiratzen badugu, ezkerrean Leitzako parke eoliko ikusiko dugu. Bada, begi horretatik jautzen dena faila da. Eta, Urrotzen, herri osoa dago failaren gainean. Hori guztia, baina, ez du ikusiko horretaz uierzen ez duenak. «Fala guzti-ri ikusten da, inguruak landa-

rez beteta baitaude. Harria ez da gainazalean ikusten». Leitzako failak Europa eta Iberia banatzen ditu. Edo batzen ditu, nondik begiratzen zaion. «Demagun Donostiezen pote bat hartzen ari zarela», azaltzu du Martinezek. «Bada, herriko zein ostatutan zauden, Europan edo Iberian egonen zara. Failatik iparraldera Europa dago, eta hegoaldera, Iberia. Bi aldeek adin bera dute, Paleozoikoak dira, baina fosil ezberdinak dituzte, eta hain-zen deformazio ezberdinek». Iberiaro plakak failatik mendiri Beltsoetaraino dagoen zatia hartzen du. Haren azpikoak —Andaluzia, Afrikako iparraldea eta Korsika— plaka korso-beltsoa da. «Gauza hauek zehaztuta, badakigu non zula-zen ahal den, non bilatu behar diren lur azpiko urak, eta non dauden petrolio eta gasa, edo non ez. Hori geotekniko deritza. Eta errepide bat egiteko orduan, oso beharrezkoa da geoteknia kontuan hartzea, material jakin batzuk sortzen di-



Falain inguruan ur bereziki izaten dira. Lizartz, adibidez, falaren ondano dago; Inslaus ura botilatzen dute han. JON URE / ARGIBEA PRESS



Leitzako failak Europa eta Iberia banatzen ditu. Edo batzen ditu, nondik begiratzen zaion. «Demagun Donostiezen pote bat hartzen ari zarela», azaltzu du Martinezek. «Bada, herriko zein ostatutan zauden, Europan edo Iberian egonen zara. Failatik iparraldera Europa dago, eta hegoaldera, Iberia. Bi aldeek adin bera dute, Paleozoikoak dira, baina fosil ezberdinak dituzte, eta hain-zen deformazio ezberdinek».

tzuten arazoak sailhete aldera. Batzuetan, hala ere, arazo geotekniko horiek onartzen dituzte, eta ingeniariak konposibideen bidez egiten diete aurre. Aresoko zubiaren inguruan, adibidez, sekulako hormigoi xafra paratu behar izan zuten haizeei eutsi ahal izateko. «Eta hau guztia zertan bukatuko da? Zer gertatuko da milioika urte barru? «Planeta berro dagoen bitartean, plaken tektonikak egonen da», erran du Martinezek. «Bada, guztiak nola ari diren mugitzen eta badakigu norantz ari diren mugitzen. Beraz, kalkulu matematikoa egitea bezertxi ez dago. Hori- ren araber, Mediterraneo desagertuko da, Afrikak gora egiten segitzen duela. Europa mugitzen ez denez, Iberiaro iparraldea jasotzen segituko du, eta hegoaldean hondortzen segituko du. Hori garbi ikusten da orain; Kantauriko itsasertzak labar altak ditu, baina Mediterraneoan ez dago labarrik ia».

Amara Birjina geologo ona da

Koldo Martinezek geologikoa dioenez, falaren inguruan termalismoa dago; hau da, ur termal-ak dauka, ur bereziki. Pirinioetako iparraldeko failan dago Lourdes, Okzitania. Eta Leitzako failaren ondano dauka Elgorriaga Nafarroan, Lizartz —Inslaus ura botilatzen dute—. Loloia eta Zestoa Gipuzkoan eta Unbe Bizkain. Horiek denek ur bereziki dituzte. «Ur bereziki dituzten toki antzeretan failak daukate», esan du Martinezek. «Adibidez, Portugalgo Patimam ur bere-

- Tolosa. Erdialdean, 130 m2ko ebebitza salga. 4 legia (bat biga bezala egokial). Estenatze, gutxi bertan izan ondoren. Tolosa. Foruen etribidien gutxi bertan ebebitza salga: busteko modukoa! Tolosa. Nafarroa etribidien gutxi bertan ebebitza salga. 3 legialdi ebebitza salga bertantzenekin. Tolosa. Pabla Goroalbe, 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, egokialdi bertantzenekin, garajea aukeran. Tolosa. Agintari kalea. Eraikuntza berriko ebebitza, 3 legialdi, egokialdi, sukaldia eta banaguila. Trastelak eta bertantzenekin. Tolosa. Trinitate, 3 legialdi eta bi banaguila. Egokialdi ederra. Ezin hobeto! Tolosa. Iurre, 3 legialdi eta 2 banaguila. Garajea aukeran. Tolosa. Zuzaldegaregi bitikikan, 101 eta 109 m2ko bi ebebitza bitan. Estenatze, erabat bertan izan ondoren. Kallite oso onekoak dira. legialdi eta bertantzenekin! Tolosa. San Francisco bitikikan, 124 m2ko ebebitza kontzeptuko. Garajekin. Tolosa. San Francisco bitikikan, 46 m2ko lokal komertziala dago salgai. Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen labarra salgai. Tolosa. Pabla Goroalbe, Taberna alkatarran. Tolosa. Iratza etribidea. Garajea alkatarran. Txarama inguruan, 100m2ko ebebitza tenazarekin, egokialdi su banaguila, berro eta garajekin. Oso egona onart. Vilabona. Larrea auzan. Eraikuntza berriko ebebitza salga. Egokialdi

ABURUZA Frakuntzak, S.A. Logo and contact information for the company.

Irargari laburrak. List of small advertisements for various services and products.

OREXA ▶ SANTA KRUZ JAIAK

# Santakutz Egunak emango die gaur amaiera herriko jaiei

Intxaurpe eta Elbarrene auzoen arteko apustua egingo dute; ondoren, pintxo lehiaketa eta dastaketa izango da elkartean

IÑIGO TERRADILLOS

Santa Kruz jaien azken eguna ospatuko dute gaur Orexan, Santakutz Eguna, hain zuzen ere. Eta ostiralarekin batera gaurkoa izan ohi da egun garrantzitsuenaren.

Bestalde, herenegun jubenen eta afizionatuen mailako pilota partiduak izan ziren herriko frontoian, eta jende asko gerturatu zen hara pilotaz gozatzeko asmotan. Partidak bukatzean bost sagardotegi desberdinetako sagardoa probatzeko aukera izan zen, eta ondoren Xabier Amuriza eta Andoni Egaña gai librean aritu ziren bertsoetan udalaxeko garbararen. Bertsu saioak ere jende ugari erakarri zuen. Gauean, musika DJ Bull-ek jarri zuen. Atzo, berriz, mus txapelketa herrikoia izan zen.

Gaurko egitarauari dagokionez, Intxaurpe eta Elbarrene auzoen arteko apustua burutuko da 12:30etik aurrera. Pasa den urtean Intxaurpe auzoak irabazi zuen dema eta erreban-txa egingo dute gaur. Bi auzoen artean pilota partidak jokatu dituzte, herri kirolak egingo dituzte eta sokatiran ariko dira, nor baino nor. Apustuaren ostean pintxo lehiaketa eta dastaketa egingo dute elkartean. Herriarrek prestatutako bazkariak emango die amaiera aurten Santa Kruz jaiak.

Ostiralean hasi eta gaur arte festa eta lagunarteko giroa izan da Orexan; izan ere, herri txikia izanda, denen artean banatzen dituzte egin beharreko lanak.



Xabier Amuriza eta Andoni Egaña gai librean aritu ziren. HITZA



Jubenen eta afizionatuen pilota partidak izan ziren herenegun. HITZA

LIZARTZA ▶ KULTURA



Iazko Lizartzako eskolaren asteo une bat. D.GIBELALDE

## Herriko Eskolaren XVI. Astea hasiko da gaur

Puntu Txapelketa, bizikleta irteera, jolasak eta egunpasa izango dira, besteak beste

I.TERRADILLOS

Gaur hasiko da Lizartzan XVI. Eskolaren Astea, eta ostirala bitarte eskolako gaztetxoentzat eta gurasoentzat hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Irakurketa saioa egingo dute ikasleek gaur, eta arratsaldean Puntu Txapelketa izango da. Bihar, berriz, 14:30ean bizikleta irteera egingo dute gazteek. Hain zuzen ere, herriatik abiatuta Nafarroako mugaraino joango dira bizikletaz. Txikienak, berriz, herrian geratuko dira eta oka bizikleta jokoan jolastuko dira. Gurasoekin batera jaialdia izango da arratsaldean euskaltegian.

Ostegun goizean, Altzo eta Abaltzisketako eskolako kideekin batera antzerkia, hamaitaketa, jolasak... Altzo eta Abaltzisketako lagunekin. 19:30. Afari-merienda frontoian.

### EGITARAUA ▶

Lizartzako Eskolaren XVI. Astea hasiko da gaur eta ostirala bitarte haurrentzat eta gurasoentzat askotariko ekitaldiak antolatu dituzte.

### GAUR

14:30. Irakurketa saioa.  
19:00. Puntu Txapelketa.

### BIHAR

14:30. Bizikleta irteera.  
19:00. Euskaltegian jaialdia.

### OSTEGUNA

Goizean. Antzerkia, hamaitaketa, jolasak... Altzo eta Abaltzisketako lagunekin. 19:30. Afari-merienda frontoian.

### OSTIRALA

Egunpasa. Txuri-Urdin-era eta Txiki-Park-era egunpasa.

### iragarki laburrak ▶

**OREXAKO UDALA**

EUSKAL PRESOK  
EUSKAL HERRIRA

ONDO PASA OREXAR GUZTIAK

Kale Nagusia, 13  
**VILLABONA**  
Tel.: 943 69 68 56  
mug.: 616 93 17 88



**Andoain.** 104 m2 erabilgarri dituen etxebizitza salgai. 4 logela eta 2 balikoirekin. Berritzea. Ikuspegiakin. Trastelekua. Etxesagasti. 943 696 856.

**Asteasu.** Txalet eraiki berria. Ezin hobea. Lurra, garajea eta trastelekua. Etxesagasti 943 69 68 56.

**Irura.** Ia berria dagoen etxebizitza ederra salgai. 3 logela eta 2 bainugelak. Garajea eta trastelekua. 49.000.000 pezeta. Ezin hobea. Etxesagasti. 943 696 856.

**Tolosa.** 85 m2-ko etxebizitza salgai. Berritzea. 3 logela. Igogailua.

Egoera ezin hobean. Etxesagasti. 943 696 856.

**Villabona.** 72 m2-ko etxebizitza salgai. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugelarekin. Eraberritua. Trasteleku handia. Etxesagasti. 943 696 856.

**Villabona.** Erabat berritutako etxebizitza ederra salgai. 3 logela. Dena kanpoaldera. Trastelekua eta garajearekin. Etxesagasti. 943 696 856.

**Zizurkil.** Erabat eraberritutako etxebizitza salgai. Bi logelarekin. Dena kanpoaldera. 3 balikoirekin.

33.800.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 696 856.

**Zizurkil.** 3 logelako etxebizitza. Erdi berritua. Igogailua. Trastelekua. 36.000.000 pezeta.

**Zizurkil.** 95 m2-ko etxebizitza ederra. 3 logela. Kanpoaldera. Balikoiekin. Egoera onean. Etxesagasti. 943 696 856.

**Eskaera handia** dela eta, etxebizitzak, bakarkako etxeak, baserriak eta nekazal eta hirigintzarako lursailak behar dira, alokairuan edo salmantan. Itxaron zerrrenda dugu.

HERRI URRATS ▶

**Herri Urratserako autobusean izen-ematea**

Iparraldeko ikastolek euskal irakaskuntzaren normalkuntza indartzeko antolatzen duten Herri Urrats hilaren 8an izango da, beti bezala, Senperoko lakuan. Tolosan Galtzaundi euskara taldeak antolatuta du autobusa eta izen-ematea egoitzan bertan egin behar da (Nafarroa etorbidea 6, behe). Aitzondo zerbitzuen mankomunitateak antolatuta du Aiztondorako autobusa. Gaur izango dute mankomunitatea osatzen duten herritarrek azken eguna izena emateko, eta gainerakoek hilaren 6a bitarte izango dute aukera 7,5 euro ordainduta. Bestalde, Belauntzan eta Leaburu-Txaraman bihar izango da autobuserako izena emateko azken eguna, eta 6 euro ordaindu behar dira horretarako. Hilaren 8an autobusa 08:15ean Txaramako paper fabrikako geltokitik irtengo da eta Leaburutik, berriz, 08:20ean aterako da arbolako geltokitik; Belauntzan, 08:30ean Andreseneko bidegurutzetik aterako da autobusa.

ELDUAIN ▶

**Haurreskolako matrikulaketa epea zabalik**

Gaurtik hilaren 18a bitarte Elduango haurreskolan haurra matrikulatzeko aukera izango dute herritarrek. Haurreskolaren ordutegia 07:30etik 18:30era izango da, eta haur bakoitzak gehienez 8 ordu egon ahaliko du bertan. Informazio gehiagorako edo bisita baten bidez haurreskola ezagutu nahi izanez gero deitu 943 68 35 89 zenbakira eta Loren edo Ixiarregatik galdetu.

BELAUNTZA ▶

**Tutorearen bisita izango du bihar KZguneak**

Bihar Belauntzako KZguneak tutorearen bisita izango du. 09:00etatik 13:00etara izango da tutorea bertan; beraz, zailak argitu nahi dituenak orduan izango du tutorearekin harremanetan jartzeko aukera. Bestalde, *Zure etxebizitza aurkitu* mintegia ere izango da bihar 09:00etatik 11:00etara KZgunean.

ANOETA ▶ GIZARTEA



Festa Alternatiboen Batzordeak agerrialdia egin zuen ostiralean, eta Udalaren jarrera salatu zuen. I. GARCIA

**«Urtetan lanean aritu direnak baztertuz ez da herria eraikitzen»**

Festa Alternatiboen Batzordeak «jai herrikoiak» antolatuko ditu aurten ere, «Udalaren jarrera arduragabea» salatzeko

IRATXE ETXEBESTE

«Heldu da berriro herriko jaietz gozatzeko garaia. Baina aurten ere, iaz bezala, Anoetako Udalean EAJ-EAK herritarren eskubideak ez dituela errespetatzen salatu beharrean gaude. Guk, herriko hainbat eragile eta taldeetako kideok, argi utzi nahi dugu herrian hainbat urtetan lanean aritutako taldeak baztertuz ez dela herria eraikitzen». Horixe esan zuten ostiralean Festa Alternatiboen batzordea osatzen duten lagunek herriko jai alternatiboak antolatuta dituztela adierazteko antolatuta zuten prentsaurrekoan.

«Horren adierazle garbia da EAJ-EA Udalaren kudeaketaren kargu egin eta lehen aipatutako herritarren bazterketa martxan jarri zutenetik Udalaren dinamikak jasan duen beharrekada nabarmena». Festa Alternatiboen Batzordeko kideen hitzetan, udal ordezkariak «bi urte daramatzate herritarren eskubideak urratzen», eta, horregatik diote ezin direla kexatu «herritarren aldetik beren deialdiek izaten duten erantzun kaskarrak», egoera horren erantzule «Udala bera baita».

Udalaren jarrerari «arduragabe» iritzita, Festa Alternati-

boen Batzordekoek esan dute herriko hainbat eragile elkartuta egin zirela Udaleko haien desadostasuna azaldu, eta «herritarren hoberako» beraien jarrerara alda zezaten eskatzeko: «Nahiz eta Udalarekin posible ez izan, guk herrian lehen zegoen dinamikarekin jarraitu nahi izan dugu. Horregatik, lehen burutzen ziren eta Udalaren utzikeriaren erruz galtzeaz zeuden hainbat ekintza berreskuratzen saiatu gara».

**«Bazterketarik gabekoak»**

Herririk bizi duen egoera ikusita, «eskaintza bat baino gehiago» egin omen diote Udalari «herritarren borondatea errespetatu, eta Anoetarrok Auzolanean plataformari dagozkion zinegotziak itzul ditzan, erabaki horrek ahalbidetuko baitu herri dinamika denon artean aurrera eramatea, bazterketarik gabe». Udalak eskaintza horri «uko» egin dionez, Anoetarrok Auzolanean herri plataformak, Anoetako Gazte Asanbladak, AHT Gelditu! Elkarlanak eta beste hainbat herritarrek «festa alternatibo herrikoiak» antolatzeari ekin diote, iaz bezala.

Hilaren 20tik 29ra «herri borondatearen aldeko eta bazter-

ketaren aurkako» jaiak antolatuta dituzte, bada, batzorde horrek: «Udalekoak ez bezala, herritar guztientzat izango direnak». Oraindik ez dute egitarau zehatzaren berri eman, baina haurrek, gazteek eta helduek parte hartzeko moduko ekintzak eta ikuskizunak izango direla aurreratu dute.

«Aurten, gainera, aurreko urteko ekintzez gain, hainbat ekimen eta ikuskizun berri izango ditugu gure eskubideen aldeko jai hauetan; tartean izango dira berreskuratuta nahi izan dugun antzerki herrikoiak, zenbait gazte eta helduk jokatuko duten sega apustua, AHT proiektu txikitzailearen aurka antolatutako azoka...», iragarri dute Festa Alternatiboen Batzordeko kideek.

Eta herritar guztiak gonbidatu dituzte festetan parte hartzera, «denon artean bazterketarik gabeko Anoetaruntz pausoa eman dezagun». Era berean, «anoetarren eskubideak errespetatzen dituzten herri borondatearen aldeko» jai horiek «giro onean eta askatasunean oinarrituta» igarotzeko deia luzatu nahi izan dute Batzordeko kideek, «ez dugulako festa partehartzaile eta herrikoi hauetan jarrera sexistarrik edo xenofoborik onartuko».

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Baliarrain.** Medikua: 88 90 03
- Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Orendain.** Medikua: 65 55 95
- Orexa.** Medikua: 68 22 28
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 00 68 00
  - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
  - ▶ Amarozk dispens.: 67 26 37
  - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ Tolargi: 65 00 16
  - ▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
  - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
  - ▶ Tolosa gasa: 67 53 20
- Villabona-Aiztondo.** Anbulatorioa: 00 69 70
- Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
- ▶ Tolosaldea bus: 65 06 21
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

- ▶ Galtzaundi: 65 50 04
- ▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
- ▶ Tipi ttopa ald.: 948 631888
- ▶ Txolarre Irratia: 69 80 38
- ▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur.** Morant, R. Zabalarreta, 1 (Tolosa). 943 67 38 49.
- Larraia. Elbarren, 95 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

- Publizitatea.** 661 67 88 18.
- tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info
- Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
- tolosa@tolosaldeko hitza.info
- Villabona-Aiz.** 687 41 00 22.
- villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info
- Anoetaidea.** 687 41 00 22
- anoetaidea@tolosaldeko hitza.info
- Ibarraldea.** 687 41 00 32.
- ibarraldea@tolosaldeko hitza.info
- Alegialdea.** 687 41 00 34.
- alegialdea@tolosaldeko hitza.info
- Leitzaldea.** 687 41 01 18.
- leitzaldea@tolosaldeko hitza.info

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko maiatzaren 3a, asteartea ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Ahazkizeta, Adina, Abotzar, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzola,  
Anoeta, Anso, Balamán, Baratzeta, Berastegi, Berroñi, Estuán, Herrialde,  
Iturriz, Irujo, Lantzi, Leizola, Lizasoain, Oñate, Tolosa, Vitoriano,  
Zuzuri Besterik. Leizaldeko Euskararen Bulegoa

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jaurkitza.  
Kultura Salla

GAURKO  
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

beroaena

18 hotzena

14

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez

arratsaldez

14

goizez

arratsaldez

14

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIA

**Tolosa.** *Alma insumisa* liburuaren aurkezpena 20:00etan Kultur Etxean.

**Tolosaldea.** Irazki kulturantzun elkartearen Zugarramurdiko kobazuloetara irteera antolatuta du 12rako. Izen-ematea, elkartean.

**Tolosa.** Nafarroan Santa Teodosia-Larraona irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak igandera.

Murube (1.128 m) mendia igoko dute. Izen-ematea, elkartean (943 65 27 89).

**Tolosa.** Eusko Jaurkitzaiek lokal komertzialetan inbertitzeko laguntzak ematen ditu. Informazioa eta eskaerak: 943 16 06 73.

### HERRI URRATS

**Aiztondo.** Aiztondo mankomunitateak autobusa antolatuta du. Izen-ematea, 943 69 39 30 telefonon. Gaur arte mankomunitateko herrikoentzat eta 4tik 6ra gainontzekoentzat.

**Tolosa.** Autobusak antolatuta ditu Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen-ematea, 17:00etatik aurrera egoitza (Nafarroa etorbidea 6).

### ZINEMA

**Tolosa.** *El penalty mas largo del mundo.* Leidor zineman 19:30ean eta 22:30ean.

# Enpresa berria zezen-plazan

**TOLOSA ▶** Hiru urtetan ariko da Madrilgo Sarot; Cayetano Rivera, burtzikari eta errektortari ikuskizunak izango dira aurtengo sanjoanetan

JOXEMI SAIZAR

**H**amar urtetan Toros Tolosako Zezenak enpresa zezen-plazaren kudeaketaz arduratu ondoren, Tolosako Udalak Madrilgo Sarot enpresarekin hiru urtetako hitzarmena sinatu du.

Tolosako enpresak «herriarekiko sentimenduz» lan egin du hamar urteotan, «une lan-tsua eta zailak» pasatuz. Hala ere, aspaldiko partez, Tolosako zezen-plaza jendez betetzea lortu zuen behin baino gehiagotan eta erronka handiena zezen-plazaren mendeurrena izan zen, 2003an; kultur, kirol eta zezen ikuskizunez betetako egitarau oparora antolatuta zuten. Negoziazio batzuen ondoren, aurten ez du akordio batera iristera lortu Udalarekin. Hala ere, aurrerantzean elkarlana berrartzea ez dute alde batera uzten bi aldeek. Orain arte plaza lehendakari zen Miguel Telleriak eta bere aholkulari Jesus Ferrok dimisioa aurkeztu dute.

Sarot SL enpresako buru Jose Felix Gonzalez da. Espainiako 21 zezen-plazaren kudeaketa darama eta duela urte batzuk Tolosan ere aritu zen ho-



lazio sanjoanetako zezenketa bat. Aurten Cayetano, Morante eta Conde ikusteko aukera izango da. J. SAIZAR

rretan. Aurtengo sanjoanetarako kartela itxi du jada eta laster egingo du aurkezpena. Hiru ikuskizun izango dira aurtengo jaietan. San Joan egunean, ekainak 24, ostirala, urteroko errektortarien saioa izango da. Hurrengo egunean, larunbata, zezenketa mistoa izango da,

Nuñez de Cuvilloren lau zezen Javier Conde eta Morante de la Puebla toreatzaileentzat eta bi zekor Cayetano Riverarentzat. Hirugarren ikuskizuna, igandean, ekainak 26, burtzikarierena izango da. El Sierro gauduetxeo zezenak izango dira Fermin Bohorquez, Ivan Magro

eta Sergio Galan burtzikarientzat.

Tolosako Udalaren eta Sarot enpresaren arteko hitzarmena hiru urterako da eta ikuskizun bereziak aurreikusten ditu 2006rako, Tolosaren sorreraren 750. urtemuga betetzen dela-eta.

## AGURRAK ▶



**URTE ASKOAN**  
**Unai Urkola (Anoeta).**  
Gaur 6 urte.  
Aita, ama eta Xabat.



**URTE ASKOAN**  
**Iker Zubillaga Gaztañaga (Alegia).**  
Egun ona pasa. Eblekoen partetik eta bereziki amonaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**Aitor Otamendi (Abaltzisketa).**  
Aizo 7 urte. Orain arte bezain bizkor jarraitu. Eblekoek, bereziki osaba Lorbato eta aitona Antonio.



**URTE ASKOAN**  
**Amaia Otamendi (Tolosa).**  
Gaur 4 urte.  
Bere familiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
**J. Bautista San Sebastian (Lizartza).**  
Gaur 86 urte. Segi horrela bizkor-bizkor. Familiaren partetik.

**HITZA,**  
zorian agurren tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
**TOLOSA**  
Udal-etxeo bulegoa  
**LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!